

Larunbateko parranda haiek



1- Larunbateko parrandak hizpide

Hemen duzu Jon Urbietak Zumaian ikusten duenaz idatzi duen artikulu laburra. Testua arretaz irakurri eta galderen erantzun zuzenak aukeratu.

Larunbateko parrandak

Jon Urbietta

Herriko tabernak egunez beterik izaten dira baina eta gaua iristean, zer gertatzen da? Nora joaten da jendea?

Duela urte batzuetatik herriko 3 taberna, *Happy Hour* (Bi trago baten prezioan ordu betez) izeneko eskaintza berezi batekin datozkigu, eta txikiteroek beraien ibilbidea duten bezalaxe, larunbat gauetan ere horrelako zerbait dagoela esan genezake.

Gaueko 11:00ak dira eta *Ganbara* taberna jende gazteaz betetzen hasten da, batz besteko adina 19 urtekoa delarik. Datozen 60 minututan bertako zerbitzariak jo eta ke lanean aritzen

dira eta hori amaitzean, erdaraz esaten den bezala "Campana y se acabo", kanpai bat joaz eskaintza amaitu dela ohartarazten dute. Eta orduan zer? Ba norbaitek puzker bat botako balu bezalaxe, korrika batean alde egiten dute hurrengo tabernara. Oraingo honetan *Txikixa* tokatzen da. Taberna honetan azkenaldian gauza ezberdinak zozkatzen dituzte eta tira, bezeroa erakartzeko beste modu bat dela esan dezakegu eta hortik *Zalla* tabernara, ibilbideko azken geltokia.

Jada 1:30ak dira eta jendea... Non dago jendea? Antenak martxan jarritz, batzuek Azkoitira doazela diote eta beste batzuek berriz Zarautza. Zer gertatzen hemen ba? Zer dute beste herriek? Azkenean, herriko denek alde egiten baldin badute, nahiz eta toki ezberdin batean egon, jendea ia ia bera izango da eta ez hori bakarrik, gainera garestiago, Zarautzengatik diot, batik bat.

Baina ez dut uste hemen gazteek bakarrik dutenik errua. Tabernariak zer? Azkoitin, adibidez, tabernarien elkarte bat dago eta guztien artean kontzertuak e.a. antolatzen dituzte. Hemen? Hemen gutxi batzuk eta bakoitza bere kasa.

Ulertzen dut ordea, azken hauek pentsa dezakete, zertako antolatuko ditugu gauzak, ondoren jendea beste herrietara joaten baldin bada?

Herritarrok, maite dezagun gure artean duguna eta saia gaitezen zuek beste herriek erakarriak izan zareten bezalaxe, kanpokoak gurera erakartzen.

Adibidez, ni pasa den larunbatean *Gure Txokoa* tabernak erakarri ninduen. Zergatik? Ba nire tragoa lasai asko edaten ari nintzen bitartean, fruitu lehorrez beteriko plater batzuk muxutruk barran jarri zituztelako, eta ez, ez ziren Gabonak, baina gau ona pasa nuen :=)

Iturria: <http://baleike.eus/>

1- Zer da Happy Hour?

- Pozik egoteko garaia
- Tabernen eskaintza berezia
- Txikiteroen ordua

2- Zer gertatzen da larunbatetan gauerdiko 12etan Zumaian?

- Ganbara tabernako eskaintza bukatzen dela
- Jendea puzkerka hasten dela
- Kanpaia jotzen dutela herriko plazan



3- *Eta 1:30ean?*

- Jendeak bere herritik aldegiten duela
- Herriko antenak martxan jartzen direla.
- Jende guztiak Azkoiti aldera jotzen duela

4- *Artikulugilearen arabera, jendeak Zumaiatik aldegiterearen errua*

- Zumaiako gazteena nahiz herriko tabernariena da
- Azkoitiko tabernariena da
- Zumaiako gazteena bakarrik da

5- *Zer proposatzen du Jon Urbietak?*

- Zumaiako tabernariak kontzertuak antolatzea
- Zumaiako tabernetan, bezeroei fruitu lehorrak oparitzea
- Herritarrak saiatzea kanpokoak Zumaiara erakartzen

2- Gaurko gazteek ere edan egiten dute

Irratiko erreportaje honetan, kazetariak Arabako gazteek zer erlazio duten alkoholarekin kontatuko dute. Era berean, gazte batzuekin hitz egingo dute. Entzun erreportajea eta esan ondoko esaldiak bat datozen entzun duzunarekin.

	EGIA	GEZURRA
Arabako gazteek ez dute egunero edaten, baina bai asteburuero.		
Gazte batek aitortzen du bere buruaren kontrola galdu zuela behin baino gehiagotan, alkohola edan ondoren.		
Arabako herri txikietan 15-16 urterekin hasten dira edaten.		
Arabako gazte gehienek edaten dute alkohola.		
Debekatuta egon arren, herrian erraz lortzen dute alkohola.		
Kalimotxoa edaten dute baina likorerik ez.		
Lagun artean edaten dute eta gurasoek ez ikusteko moduan.		
Jaietan eta txosnetan edaten dute normalean.		

3- Guk kubatak edaten genituen

Erreportaje honetan, gaurko Arabako gazteei buruzko datuak ikusi ditugu. Eta zure garaian edo herrian, nola ziren kontu horiek? Komentatu talde txikitan ondoko puntu hauek; bukatzeko, komentatu guztien aurrean emaitzak.

	Gaurko gazteek	Zure garaian
Adina	13 urte aurretik hasten dira alkohola edaten.	
Edariak	Kalimotxoa eta likoreak edaten dituzte.	
Noiz edan	Festetan edaten dute batez ere	
Kontrola	Alkohola edaten dute baina, normalean, ez dute kontrola galtzen.	

Gure iraganeko esperientzien berri emateko, ohiturazko aditz-formak erabiltzen ditugu normalean (*joaten ginen, hartzen genuen...*). Honelako esaldiak erabili ditzakezu:

- Gu 15-16 urterekin hasten ginen alkohola edaten.
- Gure garaian kopak hartzen genituen: pitarra, whiskia... Eta kubatak ere bai: ronarekin, ginebrarekin...
- Nik uste dut alkoholik gabe ere ondo pasa daitekeela, baina tradizio handia dago alkohola edateko eta...

Bestalde, horrelako lokailuak ere erabil ditzakezu: Aldiz / Ordea / Berriz / Aitzitik

- Gure garaietan 17 urterekin hasten ginen edaten; gaurko gazteak, **ordea**, 13 urterekin hasten dira...

ERANTZUNAK

1- Larunbateko parrandak hizpide

1- Zer da Happy Hour?

- Tabernen eskaintza berezia

2- Zer gertatzen da larunbatetan gauerdiko 12etan Zumaian?

- Ganbara tabernako eskaintza bukatzen dela

3- Eta 1:30ean?

- Jendeak bere herritik aldegiten duela

4- Artikulugilearen arabera, jendeak Zumaiaetik aldegiterearen errua

- Zumaiaiko gazteena nahiz herriko tabernariena da

5- Zer proposatzen du Jon Urbietak?

- Herritarrek saiatzea kanpokoak Zumaiaara erakartzen

2- Gaurko gazteek ere edan egiten dute

	EGIA	GEZURRA
Arabako gazteek ez dute egunero edaten, baina bai asteburuero.	X	
Gazte batek aitortzen du bere buruaren kontrola galdu zuela behin baino gehiagotan, alkohola edan ondoren.		X
Arabako herri txikietan 15-16 urterekin hasten dira edaten.	X	
Arabako gazte gehienek edaten dute alkohola.		X
Debekatuta egon arren, herrian erraz lortzen dute alkohola.		X
Kalimotxoa edaten dute baina likorerik ez.		X
Lagun artean edaten dute eta gurasoek ez ikusteko moduan.	X	
Jaietan eta txosnetan edaten dute normalean.		X